

Ekintza komunikatiborantz (eta II)

Joseba Urriz

Hizkuntza da gizakiok komunikaziorako dugun tresnarik behinena. Hizkuntzaren bidez pentsamenduak eta ideiak sortu, egituratu eta elkarrekin partekatzen ditugu. Baina, komunikazio-prozesu hori ez da vacuum batean gertatzen. Badira hainbat eragile tartean: nork igortzen du mezua?, nori edo norentzat?, zein ingurunetan?, zein da igorlearen xedea mezua bidaltzean?, zein testu-genero erabiliko du? Artikulugileak galdera horiek jorratuko ditu hemen, eta osoki azaltzen da eragile horiek irakaskuntzan haintzat hartzearen aldeko. Artikulu hau aldizkari honen 70. alean egileak berak argitara emandako "Ekintza komunikatiborantz (I)" lanaren segida da.

Sarrera Hizpide aldizkariaren 70. alean esan nuenez, metodo ororen oinarrian hizkuntzaren deskribapen jakin bat dago. Gramatika-itemak direla, funtzioak direla edo ataza komunikatiboak direla, hizkuntza-eskolak deskripzio hauetan oinarritzen dira, eskolara eraman beharreko materialak zehazteko, ikas-prozesuaren syllabusa aukeratzeko eta, azken batean, hizkuntza-eskolen metodologiaren inguruko guztiak ebazteko.

Eskolara eraman behar dugunak, bestalde, jatorrizko hiztunak hizkuntzarekin egiten duen horren antza izan behar du, horixe baita, denok dakigunez, metodo komunikatiboen printzipioa. Nik ere uste dut irakasleak saiatu behar duela eskolan planteatzen duen oro errealitatean egiten denaren isla izan dadin.

Zein da, bada, hizkuntzaren deskribapenik egokiena, osoena? Zer dute faltan aurreko metodoek, hizkuntzaren deskribapena egiten dutenean? Zer ekarpen egin ahal da planteamendu berri batekin?

Nire ustez, hizkuntzaren deskribapenerako oinarria *ekintza komunikatiboa* da. Ekintza komunikatiboa zaila da definitzen, baina L. Elosegik eta P. Esnalek ederto definitu zuten Hizpideren 57. zenbakian¹: hizkuntza-jarduera ekintzez osatua dago. Ekintza hauek, diotenez, *zentzua duten ekintzak* dira. Alegia, komunikazio-ekintza hauek helburu bati jarraitzen diote eta helburu horrek, hain zuzen ere, ematen die ekintzei “zentzutasun” hori.

Adibidez: gai baten inguruko iritzia eman ohi dugunean, komunikazio-jarduera horrekin, gure mezuaren hartzailea konbentzitu nahi izaten dugu, edo sikiera, gure ikuspuntua berea baino zuzenagoa dela demostratu. Beste batzuetan, ordea, ez dugu inor konbentzitu nahi izaten eta iritzia ematen dugu mezuaren hartzaileak kontuan har dezan eta, egoki irizten badio, aholku gisa erabil dezan (“ni zu izango banintz, ez nioke semeari esango hori txarto dagoela”, adibidez). Beste batzuetan, aldiz, ez dugu geure iritzia ematen aipatutako bi helburu horietarako, baina edozein kasutan ere, beste zer edo zertarako ekoitziko dugu testu bat.

Ñabarduren tiranian erori gabe, argi ikusten dut nik ere hizkuntzarekin EGIN egiten ditugula gauzak. Horrexegatik azpimarratzen dute, hain zuzen ere, Elosegik eta Esnalek hitz gakoa “egin” dela eta Austin-ek ere argi uzten du bere lanaren izenburutik beretik: *How to do Things with Words*.

Planteamendu berri batek, nire ustez, ikuspuntu soziologikoa ere hartu beharko luke kontuan, hizkuntzarekin EGIN ohi ditugun horiek komunikazioaren oinarritzko beste baldintzapen batekin gauzatzen baitira: interakzioaren baldintzapenarekin, alegia. Hori dela eta, eguneroko jardueran komunikatzen dugun (ia) guztiak erantzuna jasotzen du edo, behintzat, erreakzio bat sortzen du hartzailearengan. “Interakziotasun” hori planteamenduan modu argian txertatzeak ematen dio, hain zuzen ere, tasun soziologikoa planteamenduari. Horrexegatik diote Elosegik eta Esnalek: “*Ekintzak mundu sozialera garamatza*”.

Soberan dago esatea planteamendu berri batek hizkuntzalaritzatik ere jan behar duela, azken batean, hizkuntza baten oinarriak zeintzuk diren ezarri nahian gabilta eta. Alabaina, uste dut oso garrantzizkoa dela azpimarratzea, aurreko metodo zenbaitetan ez bezala, hizkuntzarekin egiten ditugun ekintza horiek testuetan gauzatzen direla. Hortaz, unitate linguistikoa ez da, nire ustez, eduki linguistiko jakin bat, ez eta funtzio edo nozio bat. Unitate linguistikoa TESTUA izango da (idatzia nahiz ahozkoa, laburra nahiz luzea... uler bedi bere zentzurik zabalenean). Hori dela eta, uste dut oso kontuan hartu behar ditugula linguistika testualaren oinarri teorikoak ere.

Irakurlea honezkero konturatuta egongo denez, esaten ari naizen guztia bat dator Bronckart-ek dioenarekin. Honela mintzo da bera:

Todo texto resulta de un **comportamiento** verbal concreto, llevado a cabo por un agente situado en las coordenadas del espacio y del tiempo; todo texto procede pues de un acto realizado en un **contexto “físico”**, contexto que puede ser definido por cuatro parámetros precisos:

- El **lugar de producción**: el sitio donde se produce el texto.
- El **momento de producción**: la extensión de tiempo en que se produce el texto.
- El **emisor** (o productor, o locutor): la persona (o la máquina) que produce físicamente el texto, que lo podrá hacer según la modalidad **oral** o según la modalidad **escrita**.
- El **receptor**: la(s) persona(s) susceptible(s) de percibir (o de recibir) concretamente el texto.

Cuando la producción es oral, el receptor está generalmente situado en el mismo espacio-tiempo que el emisor y está así en condiciones de responderle directamente; puede ser calificado también, en este caso, de *coproductor* o de *interlocutor*. Cuando la producción es escrita, el receptor no está generalmente situado en las coordenadas espacio-temporales del productor. En algunos casos, este receptor alejado puede responder al productor y convertirse así en su interlocutor (en el intercambio de cartas, por ejemplo); en otros casos, el receptor no dispone de ningún medio de responder y por ello no constituye ningún interlocutor.

(Por otro lado), la producción de todo texto se inscribe en el marco de la actividad de una formación social, y más precisamente en el marco de una forma de **interacción comunicativa** que implica los mundos social (normas, valores, reglas, etc.) y subjetivo (imagen que da de sí al actuar). Este **contexto socio-subjetivo** puede, asimismo, descomponerse en cuatro parámetros mayores:

- El **lugar social**; ¿en el marco de qué formación social, de qué institución, o más generalmente de qué modo de interacción se produce el texto: escuela, familia, medios de comunicación social, armada, interacción comercial, interacción informal, etc.?
- La posición social del emisor (que le da su status de **enunciador**); ¿cuál es el rol social que desempeña el emisor en la interacción en curso: rol de enseñante, de padre, de cliente, de superior jerárquico, de amigo, etc.?
- La posición social del receptor (que le da su status de **destinatario**); ¿cuál es el rol social atribuido al receptor del texto: rol de alumno, de hijo, de colega, de subordinado, de amigo, etc.?
- El **fin** (o los fines) de interacción; ¿cuál es, desde el punto de vista del enunciador, el efecto (o los efectos) que el texto es susceptible de producir sobre el destinatario?

Hauek guztiek eragiten dute testu batek (ekintza komunikatiboa gauzatzen duen testu batek) osotasuna izatean. Osotasun dinamikoa, gainera, zeren eta faktore hauek nahitaezko eragina izango baitute

(“*influencia necesaria*” dio Bronckart-ek) testu bat sortzean, baina ez dute inolako sortze-mekanismorik (“*influencia necesaria pero no mecánica*”) bideratuko².

Ekintza komunikatiboa, beraz, testuinguru batean gauzatzen da beti; eta testuinguru horri esker, hain zuzen ere, hiztunak (kontziente edo ez) jakingo du:

- Komunikatu behar duen horren abiapuntua zein izango den.
- Komunikatu behar duen horrek zeintzuk baldintza errespetatu behar dituen.
- Testuinguruaren faktoreren batek zein puntutaraino baldintzatzen duen bere mezua.
- Zein helbururekin komunikatu behar duen.
- Nori komunikatu behar dion.
- Zein roletatik komunikatu behar duen.
- ...

Funtsean, adierazi nahi dudana da ekintza komunikatibo baten testuinguruan agertzen diren deskriptore horiek guztiek markatuko dituztela, neurri handi batean, komunikazioaren zer-nolakoak.

Hori dela eta, uste dut ikasleak oso argi izan behar duela baldintzapen horiek zeintzuk diren, ondo eta egoki komunikatuko badu. Baina ikasleak ez ezik, irakasleak ere (eta areago ebaluazio-tresnen diseinatzaileek ere) kontuan hartu beharko lukete hau guztia, besteak beste, eskolan egiten duen ariketa orok errealitatearen isla izan behar duelako.


Faktoreen eragina komunikazioan

Baina nola baldintzatzen dute faktore hauek komunikazioa?

Ekintza komunikatiboaren testuingurua definitzea eta baldintzapenak argi izatea oso oinarritzko jotzen dut, izan ere, komunikazioaren baldintzapenak ere eduki bihurtu behar direla uste baitut.

Bost faktore nagusi daude ekintza komunikatiboaren testuingurua ondo definitzeko:

- 1 **Nork** ekoizten duen (“enuntziatzailea”).
- 2 **Nori** edo **norentzat** ekoizten den (“enuntziataria”).
- 3 Zein **erabilera-esparrutan** emango den komunikazioa.
- 4 Zein **xederekin** ekoizten den testua.
- 5 Zein **testu-genero** erabiliko den komunikazioan.



Azter ditzadan banan-banan:

Mezuaren enuntziatzailea

Mezuaren enuntziatzailea komunikazioaren sortzailea da. Alde horretatik, aintzat hartu beharko genuke pertsona fisiko guztiek, gizartearen zereginen arabera, ikuspuntu ezberdinetatik “komunikatu” ahal dutela. Horrela, ikasle batek, poliedro bat balitz moduan, hainbat funtzio soziali aurre egiten jakin behar du; besteak beste:

- Zerbitzu baten kontsumitzailea izan daitekeen neurrian, kontsumitzaile baten ikuspuntutik komunikatzen jakin beharko du.
- Ikaslea den neurrian, ikaslearen ikuspuntutik ere komunikatzen jakin behar du.
- Emakumea den neurrian, emakume “soil” baten ikuspuntutik ere bai.
- ...

Ikasleak, azken batean, gizartean bete beharko dituen *funtzio sozial guztiei* aurre egiten jakin beharko du. Hori dela eta, oso garrantzitsutzat jotzen dut ikasleak, gizartean izango dituen rolei aurre egingo badie, rol jakin bakoitzak dituen ondorio komunikatiboak ezagutzea; areago, ikasleak oso kontuan hartu beharko du mezua (eta testua, horrenbestez) bat edo bestea izan daitekeela betetzen duen rolaren arabera.

Lehenago esan dut komunikazioaren baldintzapenak ere eduki bihurtu behar direla eta horrenbestez, gure syllabusean (baina baita gure eskolatan eta ebaluazio-tresnetan ere) “enuntziatzailea eta bere rola” eta “rolen ondorioak” (rol bakoitzaren ondorio komunikatiboak, alegia) eduki agertu beharko genituzke.

Mezuaren enuntziataria

Komunikazioaren hartzailea da. Denok ezaguna da ez dugula modu berean komunikatzen, baldin eta gure mezuaren hartzailea haurra bada,

gai baten inguruko teknikaria bada, edo administrazioa bera bada. Enuntziarioak ere (mezuaren hartzaileak ere, alegia) komunikazioaren nondik norakoak ezartzen ditu. Horrenbestez, enuntziatzaileak, ondo komunikatuko badu, enuntziatariora izango du gogoan, bion artean erakitzen baita komunikazioaren zubia.

Esandako hau oso funtsezkotzat jotzen dut eta, hori dela eta, eduki “berri” hauek zehazte aldera, hona hemen aurrekoei gehitu behar zaizkienak: “enuntziatariora (bere ezaugarriak)” eta “enuntziarioaren ezaugarrien ondorioak komunikazioan”.

Mezuaren erabilera-esparrua

Ekintza komunikatiboa zer den esatean, berebiziko garrantzia eman behar zaio erabilera-esparruari. Esparruak, askotan, mezua moldatuko du, zeren eta ez baitituzte ezaugarri berdinak, adibidez, esparru pribatua sortzen den testuak eta esparru publiko batean sortzen denak. Planteamendu didaktiko berri honek ez du, agerian dagoenez, ezer berririk proposatzen alderdi horretan, lehenagoko metodo batzuek ere azpimarratu zutelako esparruaren garrantzia. Baina, hala ere, uste dut ikasle askori ezagutza hau *esplizitu* bihurtzea ondo etorriko zaiela.

Hona hemen erabilera-esparruari legozkiokeen edukiak: “erabilera-esparruaren ezaugarriak” eta “erabilera-esparru jakin bat erabiltzearen ondorioak”.

Mezuaren xedea

Komunikatzean, sortzen dugun edozerk helburu bat du. Lehenago ere esan dugunez, komunikazioa hizkuntzarekin zerbait egitea da, eta “zerbait” horrek komunikazioaren xedean ere isla izaten du. Bestela esanda:

Enuntziatzaileak, sortzen duen testuaren bidez, zerbait lortu nahi du enuntziarioarengandik. Batzuetan, enuntziatzaileak iritzia emango du enuntziatariora konbentzitzeko asmoz (horretarako, enuntziatzaileak, besteak beste, argi adierazi beharko du gaiarekiko bere jarrera); beste batzuetan, enuntziatzaileak informazio transmisio bat baino ez du burutu nahi izango, eta abar... Azken batean, adierazi nahi dudana da enuntziatzaile eta enuntziarioaren artean gertatzen diren komunikazio ekintzak ezberdinak izaten direla, komunikazioaren helburuaren arabera.

Eguneroko jardun komunikatiboan, maiz, enuntziatzaileak berak ezartzen du mezuaren xedea; alegia, berak erabaki ohi du zer lortu nahi duen enuntziarioarengandik bere mezuarekin. Beste zenbaitetan, ordea, baldintzapen sozialak edo beste faktoreren batek ezarri ahal du mezu horrek zein xede izan behar duen (adibidez, curriculum vitae bat egitean, idatzi ohi den aurkezpen gutuna).

Beraz, argi izan beharko genuke komunikazio orok xede bat duela. Xedea zehaztea, maiz, enuntziatzailearen esku egoten da eta, beste batzuetan, bestelako faktoreen menpe, baina edozein kasutan, helburu bat izango du. Alde honetatik, neure buruari egiten diot kritika, konturatzen naitenezan zer txarto jardun dudana ikasleari idazteko esan diodanean eta,

zorritzarrez, zertarako (zer lortzeko) idatzi behar duen adierazi ez diodan. Zehazte falta horrek, besteak beste, bihurtzen du idazmen ariketa hori zentzu gabeko, automatiko eta errealitatetik urrun geratzen den ariketa.

Syllabus “berri” horren edukiak zehazte aldera, hona hemen beste bat: “xedearen garrantzia komunikazioan (nolako xedea, halako testua)”


Testu-generoa

Dudarik gabe, atal honetan aipatuko ditudan bost osagaietatik konplexuena eta mamitsuena dena testu-generoa dugu. Planteamendu honen jarraitzaileen ustetan, komunikazioa testuetan gauzatzen da; alegia, testua da *komunikazioaren unitate minimoa*. Onartu beharra dago terminoa bera ez dela oso zehatza, zeren eta, “testua” terminoaren barruan, hainbat produkzio mota sartu behar baitira. Honek, terminoa ilundu barik, komunikazio-ekoizpen guztiak hartu nahi ditu bere barnean. Edonola ere, planteamendu honetarako TESTUA hartuko da komunikazio-unitatetzat.

Linguistika testualaren tradizioari jarraikiz, planteamendu honek bere egiten du teoria horien funtsezko printzipio bat. Alegia: testu batek, testutik gorako baldintzapen jakin batzuk izateaz gain, barneko baldintzapen zenbait ere izango ditu eta baldintza horien batuketak (alegia, testutik gorakoak eta testuarenak berarenak) ezartzen du, neurri handi batean, testuak nondik nora joko duen.

Horrenbestez, enuntziatzaileak kontuan hartu beharko du, komunikatuko duen horrek testutik gorako eskakizunak izango dituela eta, horietaz gain, testu barnekoak ere bai.

.2:



Lehenago esan dut ekintza komunikatiboa osotasun dinamikoa dela eta komunikazioaren faktoreek nahitaezko eragina izango dutela testu

bat sortzean (“*influencia necesaria*”), baina ez dutela sortze-mekanis-
morik bideratuko (“*influencia necesaria pero no mecánica*”). Bada,
testu-generoaren barneko baldintzapenen ezagutza nahitaezko iruditzen
zait, berez badauden sortze-mekanismoak ikasteko eta berauek egoki
erabiltzeko. Ez beza inork ulertu, mesedez, honen atzean eskema jakin
bat (ala batzuk) buruz ikasgaraztea planteatzen ari naizenik; ezta hurrik
eman ere. Geroago, aipatuko dudan bezala, komunikazioa eskema jakin
bat aplikatzea baino konplexuagoa da; konplexuagoa eta askeagoa.

Komunikatzen dugunean, etengabe ari gara erabakitzen zein tresna era-
bili ahal ditugun, gure komunikazioa eraginkorra izan dadin. Erabaki
horiek ondo eta egoki hartzeak bideratzen digu arrakasta komu-
nikazioan. Eta hori da, nire ustez, komunikazioaren gakoetako bat:
ERABAKIMENA. Erabakitzeko benetako gaitasuna izateko, iruditzen
zait, testu-generoaren barneko baldintzapenak eta osagaiak ezagutu
behar dituela ikasleak.

**Ekintza
komunikatiboa
syllabus osoaren
abiapuntua eta
helburua**

Planteamendu askori leporatu izan zaie egin dituzten aldarrikapenek ez
dutela syllabus osoa hezurramitzen; alegia, baliagarriak direla maila
jakin batzuetarako, baina oso zailak direla gauzatzen beste zenbait
mailatan.


Ez dut uste, ordea, planteamendu honetan bekatu bera egiten denik,
ekintza komunikatiboak syllabusaren ardatza izan behar duela esatean.
Izan ere, nik ere horixe uste dut: ekintza komunikatiboa komunikazio
ororen oinarria eta era berean unitate minimoa dela.

Bestalde, planteamendu honetan egiten diren ekarpenik handienetakoa
ez da, nire ustez, “ekintza komunikatiboaren” kontzeptua bera, baizik
eta, aurreko puntuan adierazi bezala, ekintza komunikatiboetan oina-
rritzearen ondorio metodologikoa. Alegia, ekintza komunikatiboak izan
behar du, komunikazioan ere gertatzen den moduan, gure irakasle-jar-
dueraren abiapuntu eta helburua.

Ekintza komunikatiboaren kontzeptuak, nire ustez, berrikuntzak
ekarriko ditu hizkuntz irakaskuntzara (eta, bidenabar, hizkuntza-
-ikaskuntzara ere), baina batez ere, horrela planteatzeak bide emango
digu, nire ustez, arreta benetako komunikazioaren funtsean jartzeko.
Zehatzago esanda:

Hiztun orok, komunikatzean, ekintza komunikatibo bat gauzatzen
du. Ekintza komunikatibo horren ezaugarriak modu kontziente edo
inkontziente batean ezagutzen ditu eta, hori dela eta, komunikatzen
duen guztiaren abiapuntu du ezagutza hori (alegia, nori komunikatuko
dion, zertarako, nola...). Baina, abiapuntua izateaz gain, ekintza komu-
nikatiboa betetzea izango du helburu hiztunak. Horrenbestez, ekintza
komunikatiboa komunikazioaren *abiapuntua eta helburua* da.

.3:



Uste dut ikasleak ere izan behar duela kontuan prozesu hau, besteak beste, ikasleak komunikatzea duelako helburu eta komunikazioren inguruko “mekanismoak” kontzienteki ezagutu eta ikastea lagungarri izango zaiolako. Zeren eta, funtsean, uste baitut ikasteak, neurri handi batean, prozesu kontzientea izan behar duela. Horrela diote, behintzat, autore askok³:

“El aprendizaje consciente conduce a un nivel de competencia más alto, puesto que es acumulativo y progresivo. Gracias a que la gente sabe qué ha aprendido y cómo lo ha hecho, puede decidir si corrige el proceso o continúa con él.”

Horrenbestez, iruditzen zait ikasleak burutik kendu beharko lukeela (edo kendu beharko geniokeela) eskolan hitz egiten dela hitz egitearren edo idatzi egiten dela idaztearren. Horrela, ulertuko bide du zergatik ematen zaizkion, adibiderako, hurrengoak bezalako testuinguruak:

“Herriko eskolako maisu-maistrak greban egon dira azken 10 egun hauetan, zure ustez, bidezkoak ez diren aldarrikapenak egiteko. Bien bitartean, seme-alabak etxean izan behar izan dituzu. Idatz ezazu iritzi artikulatu bat metroaren atarrietan banatu ohi den egunkari baterako (zuzendari gutuna sailean argitaratuko dena). Bertan, maisu-maistren jarrera kritikatu eta sortzen dituen eragozpenak kritikatu beharko dituzu, ea horrela lanera bueltatzen diren” (3. mailarako).

Edo beste hau:

“Herriko eskolako maisu-maistrak greban egon dira azken 10 egun hauetan, zure ustez, bidezkoak ez diren aldarrikapenak egiteko. Bien bitartean, seme-alabak etxean izan behar izan dituzu. Idatz iezaiozu eskolako zuzendariari gutun bat, zure desadostasuna adieraziz. Gutunean egoera salatu beharko duzu eta maisu-maistren jarrera kritikatu duzu sortzen dituen eragozpenengatik. Gutunarekin, azken batean, zera nahi duzu: halako grebak ego-tean, eskolak har dezan zure seme-alaben ardura eskola orduetan” (2. mailarako).

Edo beste hau:

“Herriko eskolako maisu-maistrak greban egon dira azken 10 egun hauetan, zure ustez, bidezkoak ez diren aldarrikapenak egiteko. Bien bitartean, seme-alabak etxean izan behar izan dituzu eta izugarrizko nahastea izan duzu etxean. Ez duzu jakin zer egin haiekin, lanera joan zarenean ez zara gustura ibili, seme-alabek etxean zer egiten ote zuten beldur... Laugarren egunean aste bat opor hartzea erabaki duzu seme-alabekin egoteko. Seme-alabak jolasean ari direla, zure lagun bati e-posta bat idaztea erabaki duzu zer gertatzen ari den kontatzeko. Idatz iezaiozu, bada, e-posta eta adierazi hurrengoak: batetik eskolako maisu-maistrekin duzun haserrera (eman zergatiak) eta bestetik deskriba ezazu etxean duzun egoera. Umeekin zer egin dezakezun aholkatzeko eskatu. Azken finean, zure helburua zera da: egunotan zer gertatzen ari zaizun kontatu nahi diozu lagunari eta egoeraren aurrean aholkuren bat eskatu nahi diozu” (1. mailarako).

Erabakimena

Seguru nago irakurle bat baino gehiago, dagoeneko, hasi dela bere buruari galdetzen ea ekintza komunikatiboak dituen osagai guztiak eduki bihurtzean datzan kontu hau guztia. Uste dut planteamendua oraindik ere konplexuagoa eta, era berean, aberatsagoa dela. Errepara diezaiogun beste kontzeptu garrantzitsu bati, esaten ari naizen hau ondo ulertzeko.

- Ekintza komunikatibo bakoitzari testu bakarra dagokio?
- Gure syllabusak ekintza komunikatiboen zerrenda luze bat (eta, beraz, bakoitzari dagokion testua) izan beharko luke?
- Nola jakin dezakegu zein testu dagokion ekintza komunikatibo bati? Ekintza komunikatiboa modu bakarrean gauzatu ahal da ala aukerak bat baino gehiago dira?

Zehatz dezadan kontu hau. Hona hemen 3. mailako ikasle batek burutzen jakin beharko lukeen ariketa bat⁴.

Energia nuklearra, beharrezkoa ala arriskutsuegia?

“Orain dela 22 urte, 1986.eko apirilaren 26an, munduan izan den istripu nuklearrik larriena gertatu zen Sobiet Batasuneko Txernobilen. Milaka lagun hil zituen: 56 zuzenean eta, iturrien arabera, 4.000 eta 93.000 artean minbiziaren erruz. Hala ere, azkenaldi honetan, CO2 isurketak murriztu beharrak eta petrolioaren garestitzeak bultzada eman diote energia nuklearrari”.

Albistearen gaia kontuan hartuta, herriko aldizkarirako **artikulu** bat idatzi behar duzu.

Eman zure iritzia.

Zure iritzia ematearekin batera, energia nuklearraren aldeko eta kontrako ikuspegiak ere azaldu.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Ariketak baditu bere kritikak, besteak beste, ariketa egokia izateko informazio handiagoa izan beharko genukeelako. Baina, informazio-falta horrek, agian, jarriko gaitu eskolan egin ohi dugun horretatik hurbilago.

Benetako hitzun batek, egoera honen aurrean egonda, hainbat erabaki hartu beharko lituzke:

- *Enuntziatzaileari dagozkion erabakiak*

Hiztunak, mezuaren enuntziatzailea den aldetik, zein roletatik komunikatuko duen erabaki beharko du. Erabaki hori, jakina, bere bizipen pertsonalek, ezagupenek, gaiarekiko jarrerak... emanda etorriko da. Horrela, oinarri hartu dudana ariketan rola ez zaio zehazten ikasleari, baina horrek ez du esan nahi erabaki behar ez duenik. Zeren eta, jakina, bururatu ahal zaizkion rol guztiak ez diren egokiak ekintza komunikatibo honetan (adibidez, futbolzalearena) eta batzuk, seguruenik, beste batzuk baino egokiagoak izango diren (adibidez, testua herriko aldizkarian argitaratuko denez, ez du ematen ikuspuntu zientifikoa egokia denik –edo bai, batek daki–).

Edozein modutan ere, argi dago ikasleak bere rola aukeratu beharko duela eta rol bakoitzaren egokitasuna eta desegokitasuna aztertu beharko duela.

- *Enuntziatariorari dagozkion erabakiak*

Dagoeneko esana dut mezuaren enuntziatzaileak enuntziatariora izan behar duela gogoan. Horrenbestez, enuntziatzaileak enuntziatariora irudikatu behar du: bere ezaugarriak antzeman, gaiaren inguruko bere ezagutzak eta gaiarekiko jarrera aurreikusi; enuntziatarioraren perfil soziala ere igarri beharko du.

Hemen ere, beraz, enuntziatzaileak erabaki batzuk hartu beharko ditu.

- *Xedea*

Lehenagotik ere zehaztuta dugu komunikazio orok xede bat duela, enuntziatzaileak, sortzen duen testuaren bidez, zerbait lortu nahi baitu enuntziatariorengandik. Eguneroko horretan, etengabe ari gara erabakitzen sortzen dugun testu horrek zer helburu izango duen, eta helburu hori kontuan hartuta testua gauzatzen dugu. Oinarri hartu dugun ariketan, ordea, helburua lausoegi adierazi delakoan nago (eman zure iritzia).

Ikasleak baldin badaki “eman zure iritzia” horren atzean zer dagoen, esango nuke ariketa ondo diseinatuta dagoela. Zehazte falta horrek, ordea, nahasmendua ekarriko badio, txarto planteatuta dago. Baina edonola delarik ere, ikasleak (eta irakasleak ere bai, bere gida den neurrian behintzat) oso argi izan behar du ekoizten duen guztiak xede bat izango duela. Eta xede horri erreparatzeak eta, helburua betetzeko, aukeratzen diren tresnek baldintzatuko dutela testuaren arrakasta (ala porrota).

- *Erabilera-esparrua*

Erabilera esparruak ere gure komunikazioa baldintzatzen duenez, bere baldintzak zeintzuk diren jakin eta kontuan hartu beharko ditugu. Horrela, erabaki beharko du erabili behar duen erregistroa zein den, erabili behar duen hiztegia zein den, luzera ere erabaki behar du...

- *Testu-generoa*

Enuntziatzaileak, lehenago esan dudanez, enuntziatariora irudikatuko du. Irudi horrek batetik eta, bestetik, komunikazioaren xedeak eraman ohi gaituzte testu genero jakin bat (testu-mota zehatzago esanda) aukeratzera. Horrela, enuntziatzaileak enuntziatarioraren gainean egiten duen irudiaren arabera, testu-mota jakin bat aukeratu du; alegia⁵:

- Narraziora joko du, hartzaillearen arreta ahula dela irudituta eta, hain zuzen, arreta hori pizteko. Horretarako, baliabide bereziak erabiliko ditu: hasteko modua (“behin batean”), kontaketa eraketa, kontaketa bizitzea (“eta bat-batean”)...
- Espplikaziora joko du, uste badu hartzailleak arazoak dituela gaia ulertzeko, dela ezezaguna duelako, dela berez zaila delako... Eta ahalik eta gehien saiatuko da gaia xehatzen, hartzaillearen eza-guztetan oinarritzen, hartzaillearentzat berria denari arreta handiago eskaintzen, adibideak ipintzen...
- Argudiozkoa baliatuko du, hartzaillearen jarrera edo pentsaera juzgatzen baditu behaztopaharri; ez dagoelako prest berak (enuntziatzaileak) dioena onartzeko, edo gauzak bestela ikusten dituelako...
- Enuntziatzaileak, horregatik, ahalik baliabide gehien erabiliko du hura (hartzaillea/enuntziatariora) bereganatzearen: arrazoiak, aldeko arrazoiak indartzaileak, kontrako arrazoiak ahulgarriak...; adituen iritzia; baliabide erretoriko eta dialektikoak...

- Deskribapenera jo beharrean ikusiko du bere burua, hartzaileak zerbait ezezaguna duenean, edo hartaz oroitzen ez denean... Orduan, erretratua egingo dio hitzez, ñabardurarik esanguratsuenak azalduz eta azpimarratuz...
- Instrukzioa (eta agindua eta prozeduraren azalpena) erabiliko du, enuntziarioari zerbait eginarazi nahi badio, edo konturatzen bada enuntziarioak ez dakiela zerbait egiten, edo berak (enuntziatzaileak) nahi ez bezala egiten ari dela... Eta eragiten eta nola egin azaltzen saiatuko da.
- Elkarrizketan, berriz, aurreko egoera guztiak azal daitezke; eta unean uneko erabakia hartuko du enuntziatzaileak, enuntziarioaren jardunaren arabera.

Bestela esanda, enuntziarioarekiko arazo bat topatzean jotzen du enuntziatzaileak testu mota jakin bat erabiltzera: besteak beste, enuntziarioaren arretarik eza (narrazioa), enuntziarioaren ezjakintasuna edo gaiaren zailtasuna (esplikazioa), enuntziarioaren kontrako jarrera edo desadostasuna (argudiozkoa), enuntziarioaren ezagutzarik eza edo ahanztura (deskribapena), enuntziarioaren ezjakintasuna, pasibotasuna edo noraeza (instrukzioa, agindua...).

Adibide gisa eman dugun ariketan testu-generoa aldeztu aurretik ematen zaigu: iritzi-artikula.

Gainera, enuntziatzaileak (ikasleak gure kasuan) kontuan hartu behar du testu genero jakin bat izateak barneko baldintzapean batzuk ere ekarriko dizkigula. Alegia, erabaki beharko du:

- Zein den testuari emango dion egitura.
- Zer diskurtso mota nagusituko den bere testuan (azalpena ala kontaketa).
- Zer nolako inplikazioa hartuko duen bere testuan, alegia: lehenengo pertsona erabilia komunikatuko duen ala ez; beste hitz batzuetan esanda, testuaren interaktibotasuna erabaki beharko du.
- ...

Jakina hau guztia erabaki beharko du, testu generoak esparru hauetan bere baldintzak jartzen dituelako.

Ondorioa

Beraz, ekintza komunikatibo bat burutzea hainbat erabakiren ondorioa da. Eta hartzen diren erabaki horiek egokiak eta eraginkorrak izan behar dute. Ikasleak, bada, erabakitzen jakin beharko du eta, jakin ezean, ikasi beharko du erabakiak hartzen.

Azken batean, iruditzen zait kontzeptu hau dela proposamen honen altxorra: ERABAKIMENA

Ekintza komunikatiboa hizkuntza baten deskripzioa baino ez da, osoagoa ala laburragoa, baina, era batean edo bestean, hizkuntzaren deskripzioa.

Alabaina, hizkuntza honen deskripzioan oso agerian geratzen da komunikazioa 5 osagairen oreka dela (enuntziatzailea, enuntziataria, esparua, testu generoa eta helburua) eta oreka hau ez dela automatikoa, alegia, ez da beti berdina, eta gainera ez da bakarra.

Burutik kendu beharko genituzke hurrengo bezalako eskemak:

.5:



Eta buruan sartu ekintza komunikatibo bat modu askotan burutu ahal dela.

.6:



Taberna bateko zerbitzariak, eskuan daraman bandejan basorik ez erotzeko edo bandejatik edaririk ez jausteko, beharrezkoa duen oreka hori beharrezkoa du enuntziataria ere (ikaslea ere), ondo, egoki eta eraginkor komunikatuko badu. Halako kasuetan ere, izugarri garrantzitsua da pisu handia duen botila bandejaren zein albotan jarri behar den edo hutsik daramagun edalontzia bandejaren erdigunean ala izkina batean jarri behar dugun... Zerbitzariak erabaki ohi du zein banaketak bermatzen dion ondoen bandejako ezer ez zaiola eroriko. Jakin badaki mila modutan ordenatu ahal dituela basoak, botila... baina bakarria iruditzen zaio egokiena.

Horretan trebatu behar dugu ikaslea, bandejako elementu guztiak kon-tuan hartzen eta erabakitzen zein ordenak bermatuko dion ondoen bere asmoa. Eta askotan egingo du kale eta txarto erabakiko du, baina ikasi egingo du, zerbitzariak ikasten duten moduan.

Bestalde guk bere lana baloratzean, aztertu beharko dugu erabaki duena egokiena eta eraginkorrena den, erabaki horien atzean ikusten baita argien ikaslearen komunikagaitasuna.

Kontuan hartuta hizkuntza irakasleak garela eta hizkuntza komunikazioa dela, ez dut uste inork ukatuko didanik komunikagaitasuna ardatz dela gure lanean. Nik horrela uste dut, beste gehiena (gramatika edukiak, hiztegia, atzizkibidea...) tresnak baino ez dira, zerbitzariaren ban-dejan edariak, basoak... tresnak diren bezala. Garrantzitsuena oreka lortzea da eta oreka lortzeko erabakitzen jakitea.

Oharrak

1. Elozegi, L. eta Esnal, P (2005): Ekintza komunikatiboa. In *Hizpide* 57: 25 orr.
2. Jakina, honek zerikusi handia izango du ERABAKIMENArekin hain zuzen ere.
3. Hall, Edward Twitchell, in *The Silent Language*.
4. In http://www.ikasbil.net/idatziak/2008_3%20mailako%20azterketa%20B_090218_0935.pdf
5. Esnal, P. (2003) In *Hizpide* 53.

Bibliografia

- Adam, J. M.** 1990. *Éléments de linguistique textuelle. Théorie et pratique de l'analyse textuelle*. Liège: Mardaga.
- Bronckart, J. P.** 1996. *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*. Lausanne - Paris: Delachaux et Niestlé.
- Canale, M. y Swain, M.** 1996. «Fundamentos teóricos de los enfoques comunicativos», *Signos*, 17 eta 18 (pp. 78-91), 1996.
- Candlin, C.** 1990) «Hacia la enseñanza de lenguas basada en tareas». *Comunicación, lenguaje y educación*, 7-8, 33-53.

Europako kontseilua 2001. Europako Erreferentzia Markoa.

Euskaltzaindia. 1990. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III (EGLU III)*.

Elozegi, L. eta Esnal, P. 2005. *Ekintza komunikatiboa*. In *Hizpide* 57

Esnal, P. 2002. *Testu antolatzaileak*. In *Hizpide* 50

Esnal, P. 2003. *Testu-motak: sekuentzia eta hizkuntza ekintza*. In *Hizpide* 53

Feez, S. 2004. "Testu bidezko syllabus-diseinua". *HABE* itzulpen saila 46, 30. or.

Hernández, M. J., Zanón, J. 1990. «La enseñanza de la comunicación en la clase de español». *CABLE*. 5, 12-19.

Larsen-Freeman D., Long, M. 1991. *Introducción al estudio de la adquisición de segundas lenguas*. Nueva York: Longman. Madrid: Gredos, 1994.

Richards, J. C. eta Rodgers, T. S. 1986. *Enfoques y métodos en la enseñanza de idiomas*. Madrid: Cambridge University Press, Col. Cambridge de Didáctica de Lenguas, 1998.